BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

317

EBAZPENA, 2014ko abenduaren 26koa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariarena. Honen bidez, nekazaritza eta abeltzaintzako sektorean sasoiko lana egiten dutenentzako ostatuak diruz laguntzen dituen apirilaren 17ko 62/2007 Dekretuaren kariaz 2014ko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzen da.

Apirilaren 17ko 62/2007 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorean sasoiko lana egiten dutenentzako ostatuak eraiki, egokitu, hobetu eta ekipatzeko diru-laguntzak ematen dira (2006ko ekainaren 4ko EHAA, 106. zk.).

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko ekainaren 4ko Aginduaren bidez, laguntzen deialdia egin zen 2014. urterako, eta laguntza horiek eskatzeko epea ireki zen.

Aipatutako dekretu horren 11.4 artikuluan ezarritakoa betez, eta kasuan kasuko ebazpena banan-banan jakinaraztea eragotzi gabe, Landa Garapenaren eta Itsasertzaren zuzendariak ebazpena eman du denek jakiteko dekretu horren babesean onuradun izango diren pertsonak nor diren eta diru-laguntzen kopuru osoa zenbatekoa den; ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Apirilaren 17ko 62/2007 Dekretuaren kariaz 2014ko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzea. Dekretu horrek nekazaritza eta abeltzaintzako sektorean sasoiko lana egiten dutenentzako ostatuak diruz laguntzen ditu.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gorako errekurtsoa jarri ahal izango diote Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 26a.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria,
ELENA GUTIÉRREZ PÉREZ DEL NOTARIO.

ERANSKINA

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA

2014ko onuraduna	Zenbatekoa (eurotan)
Eduardo Jalon Lacalle	393,56
Blanco Laiseca, S.C.	738,56
Bodegas Espada Ojeda, S.C.	10.433,23
Jose Antonio Ugarte Garcia	1.668,37